


Elgoibar, 1327. zenb.
XXXI. urtea - 2024/05/10



**Burua altxatzeko
deia**



Ba al duzu konpondu beharreko arroparik?
Ekarri, eta berri-berri utziko dizugu, zeure neurrira.
Jantzigintzarako makina bereziak ditugu,
edozein ehun konpondu ahal izateko:



Komertzioekin lan egiten dugu
(etxeko ehungintzeekin eta jantziekin)
TARIFA BEREZIAK!

**PUNTUZKO EHUNAK, TXIRRINDULARITZAKO MAILOTAK ETA KULOTEAK,
LARRUA, ZETA ETA ABAR LUZE BAT...**

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



ZELETA

NEGUTEGIAK

ZELETA BASERRIA Aiestia auzoa (Elgoibar)

 **690 288 002**

PIPER ETA TOMATE LANDARE SALMENTA

Zeletan Negutegietan ereindako bertako eta kanpokoak diren piper eta tomate landare barietate desberdinen salmenta.

- Piperra: Gindilla, Gernikakoa, Mungiako Lehuna eta Portuarte
- Tomatea: Aretxabaletako mozkorra, Markinako piko luze, bertoko tomate haundi zatarra, Label barietatea, Ojo de Buey,...



ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEEN BATZAR OROKORRA

Maiatzak 30, eguena, 18:30ean,
Aita Agirreko areto nagusian.



ELGOIBARKO IZARRA
Ezkerkideen Topagunea

EXPRESS ESKAINTZAK!

BALAY 3VS572BP ONTZI-GARBIGAILUA

ATG **E**

439 €



- 13 Zerbitzu
- Karga erdia
- Mahai tresnertzako 3. erretilua
- Kargatzeko etenaldiaren funtzioa
- 24 ordu arteko programazio geroratua

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitako en erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzurika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria

Ane Astiazaran

Itzultzailea

Musumerke



"Testuingururik ere ez da behar musumerkea izateak duen karga negatiboa antzemateko"

Musukatzaila, edozeini musu emateko prest dagoena. Besucón, besucona. Horixe da hiztegiek "musumerke" hitzari buruz diotena. Pasa den astean entzun nuen lehen aldiz, eta ezagutzen ez banuen ere, hitzaren osaerak berak erraz eraman ninduen esanahia ulertzera. "Musumerke? Aiba!", eta irribarretxo bat irten zitzaidan. Bigarren pentsamendu batek segituan ilundu zidan bekozkoa, ordea. Testuingururik ere ez da behar musumerkea izateak duen karga negatiboa antzemateko.

Agian hizkuntzen ekuazioak ez dira horren sinpleak, baina euskaraz musumerke hitza existitzen bada (eta kontrakoa adierazten duen terminorik ez), euskal gizartean gaizki ikusita egongo da bikote harremanen intimitatetik kanpo musu emateko prestutasuna? Are gehiago, begi onez ikusiko da orduan elkarri musurik ez ematea?

Konnotazio fuertedun hitzek agerian lagatzen dute zer kondenuatu eta zer saritzen den testuinguru zehatz batean. Maitasuna vs. hoztasuna. Sentibera vs. harri kozkorra. Estereotipoetatik urrundu nahi dugu, baina eroso antzean gaude ezgaitu emozional paperean. Gero gure buruari galdetuko diogu ea zergatik dugun emozioak espresatzeko halako zailtasuna. Gizartea hizkuntza baino pauso bat aurrerago ibili ohi da, baina kasu honetan aldebiko kontua dirudi, eta mesede eskasa egiten diete halako terminoek gure harremanei.

Nik gaurko egunez musumerke totala izateko asmoa dut, eta bitartean hitz (zatar samar) horren antonimoren bat asmatzen hasi gaitzke guztion artean, ezta?

*BARRE*Nek ez du bere gain hartzen *Iritzia eta Eskutitzak* ataletan adierazitakoen erantzukizunik. *Eskutitzak* ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, *NANA* eta telefonoa jarzea. Bidali helbide honetara: *barren@elgoibarkoizarra.eus*

Errugabea da kontrakoa frogatu arte

Pablo Gonzalez kazetariak 42 urte bete zituen apirilaren 28an, eta aske utz dezatela eskatzeko, martxa bat, herri bazkaria, bertso-saioa eta kontzertuak antolatu zituzten Nabarnizen (Bizkaia).

Abokatuen bidez iritsi zitzairen Pabloren gutuna ere irakurri zuten. Jasotzen ari den babesa eskertu eta Poloniako kartzela-sistema gaitzesten du: "Hor zaudetela eta bakarrik ez nagoela jakitea funtsezkoa da geroari baikortasunez begiratzeko eta espero izateko atxiloketa 'demokratikoa' lehenbailehen bukatuko dela. Poloniako lege eta kartzela-sistemak ahal duen guztia egiten du norbanakoari gizatasuna kentzeko; ez dago gizarteratzerik hemen; desmoralizazioa besterik ez dago. Beste presoengan ikusten dudanez, gizarte bazterketak, eta familia eta bizilagunen elkartasun faltak, sistemak berak baino gehiago urtzen dute. Nire gizarteak justizia eskatzen du, nire askatasuna, gutxienez ni etxera gerturatzea... elkartasun horretan dago gure indarra, eta besteengandik desberdintzen gaitu".

Ez dago frogarik, ez kargurik, ez epaiketarako datarik; senideek ez dakite noiz epaituko duten. Euskal kazetaria aske uzteko eta errugabetasun-

presuntzioa eskatzen jarraitu behar dugu, errugabea delako kontrakoa frogatu arte.

A.I.Z.

Mintxetako berdegunea irekitzearen alde

Udaberriarekin batera, indartu egiten dira gure ingurune hurbileko naturak eskaintzen dituen aukerekin lotutako aisialdiaz gozatzeko gogoia eta beharra. Aukeretako bat Mintxetako berdegunea izan zitekeen, baina zoritxarrez, aurten ere itxita jarraituko du igeritoki sasoitik kanpo.

EH Bildutik urtero eskatu arren gune hori herritarren doako gozamenerako urte osoan zehar zabaltzeko, itxita jarraituko du igerilekuak ireki arte, eta haiek ixtearekin batera itxiko dute. Izan ere, gobernu-taldeak (EAJ-PSE) bere jarrerari eusten dio temati, irekierari betoa jarriz, ganorazko argudio tekniko edo ekonomikorik eman gabe.

Ondorioa ezaguna da: aurten ere herritar askok ibilgailu pribatuan joan beharko dute erdigunetik urrunago dauden beste aisialdi naturaleko guneetara. Ekitate printzipioa apurtzen duen ondorioa, bide batez esanda.


EH Bilduren ildoetako bat, herritarren bizikalitatea helburu, herritarrenak diren baliabideak ondo aprobetxatzea eta eraginkortasunez erabiltzea denez, lanean jarraituko dugu, Mintxetako berdegunea urtean zehar ere irekia egotea lortu arte. Temati gu ere bai.

Elgoibarko EH Bildu



Pepita Usatorre Lizarralde

2024ko maiatzaren 2an hil zen, 90 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.




XII. URTEURRENA

Angel Mari Arregi Cano

2012ko maiatzaren 11n hil zen.

***Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu gure bihotzean.***

Familiakoak





Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 655 658



Trenbide kalean aparkalekuak kendu dituzte, zabor edukiontziak jartzeko:

"Ezin al dira zabor edukiontziak beste inon jarri? Lau bat aparkaleku hartzen dituzte edukiontzien Trenbide kalean, eta azken hori ere ezin izaten da erabili askotan. Herrigunean aparkaleku falta nabarmena da, eta horrelakoak kontuan hartu beharko lirateke".



Urruzunoko parkerako sarbidea oso egoera txarrean dago:

"Urruzunoko parke berria oso ondo geratu da. Gune berde txukuna egokitu dute aire librean, eta zainduz gero, herriko gune erakargarrietakoa bihurtu daiteke. Hori bai, hara iristeko bidea ez dute txukundu. Parke berria inauguratzeko prisa izan dutela dirudi".



Txalo bat Birakari, zapatuko emanaldiagatik:

Nazioarteko Egunaren harira dantzaldia egin zuten Birakako zenbait taldek Kultur Kafean eta oso polita izan zen. Hori bai, ikusleentzat lekua ez zen oso aproposa izan. Atzeko ilarakoek ez zuten ondo ikusten, eta pena izan zen".



Aitzbeltz tabernak irabazi du Mendaroko Pintxo Lehiaketa

Aitzbeltz tabernak nagusitasunez irabazi du Mendaroko pintxo lehiaketa, epaimahai teknikoaren eta botoa eman duten herritarren iritziz hangoa izan baitzen mokadurik goxoen aipirileko azkeneko asteburuan egin zuten lehiaketan. Guztira, 1.035 herritarrek eman zuten botoa, eta boto kopuru gehien Uztargi tabernan jaso bazuten ere (427), puntuaziorik handiena Aitzbeltzeko pintxoak eskuratu zuen: 238 lagunek eman zuten botoa Aitzbeltzen, eta batez beste, 8,37ko puntuazioa eman zioten pintxoari. Epaimahai teknikoa osatu zuten epaileen iritziz ere, hangoa izan zen mokadurik goxoen, 7,55eko puntuazioarekin. Urdaiazpikoan bildutako orburu tenpura prestatu zuten.

Bigarren pintxorik onena Uztargikoa aukeratu zuten, bai herritarrek eta baita epaimahai teknikoak ere, eta hirugarren onena, Ormolakoa, Lagun Betikoakekoaren aurretik. Udalak joan zen barikuan banatu zituen sariak. Hein berean,



lehiaketan botoa eman zuten herritarren artean lau sari zozkatu zituzten, eta hauek izan ziren irabazleak: Naroa Zubia, Jon Larrañaga, Esther (abizenik ez dute zehaztu) eta Denis Jurado. 50na euroko bale bana jaso zuten lehiaketan parte hartu zuten tabernetan gastatzeko

Santa Ana ermita birgaitzeari buruzko azalpenak emateko bilera antolatu du Mendaroko Udalak



Santa Ana basilizaren birgaitzeko proiektuaren inguruan azalpenak emateko bilera antolatu du Mendaroko Udalak maiatzaren 16rako (udaletxeko udalbatza aretoan, 19:00etan). Otsailan jakinarazi zuen Udalak, ermita ez dagoela hasieran uste zen bezain kaltetua. Hala ondorioztatu zuen Gipuzkoako Ondare Historiko-Artistikoa Saileko arkitektoak eraikina ikuskatu ostean. Teilatua konpondu, egoera txarrean dauden egurrak aldatu eta beste lan osagarriren bat egitearekin nahikoa izango dela zabaldu zuten orduan, eta obra hori egiteko, Babestutako Ondarea Birgaitzeko diru laguntzetara aurkeztuko zuela proiektua Mendaroko Udalak. 1986. urteaz gozotik Donostiako Gotzaindegiarena da ermita.

Gaztaren Eguna antolatu du Mendaroko Udalak maiatzaren 19rako

Gaztaren Eguna ospatuko dute Mendaron maiatzaren 19an, Herriko Enparantzan. Goienetxe, Egotza, Axeleku eta Mausitxa gaztagileen gaztak eta Mendaroko Ospas eta Etarte baserrietako sagardoa egongo da dastagai. 2 euroan, lau gazta zati dastatu ahal izango dira, eta 5 euroan, bi sagardo trago edan eta lau gazta zati dastatu ahal izango dira.

Zientzia eta teknologia alorreko lanak erakutsiko dituzte Elgoibarko ikasleek Zientzia Azokan

Zientzia Azoka antolatu du Udalak maiatzaren 18rako, Jaurlaritzaren eta Elhuyarren laguntzaz. Zientzia eta teknologiarri lotutako 30 postu jarriko dituzte Lekuederren, eta ondorengo eragileek hartuko dute parte: Elgoibar BHIK, Elgoibar Ikastolak, Elgoibarko Herri Eskolak, IMH Campusek, Meka LHIK, Makina Erremintaren Museoak, Bizilabek, Robotika Dibertigarriak, Danobatgroupek eta Somabe Makina Bereziak.

Azoka honen helburu nagusia zera da: Elgoibarko umeek zientziaren eta teknologiaren arloan lantzen dituzten proiektuak herriari erakustea; baita ere, zientziarekin, teknologiarekin eta berrikuntzarekin lotutako balioak sustatzea eta gizartearen kultura zientifikoa handitzea. Bost postu mota egongo dira: Bizilabe ekimenean parte hartzen duten haurren lanak, Robotika ikastaroko ikasleen



lanen postuak, stand profesionalak eta Lanbide Heziketako ikastetxeen eta unibertsitateenak. Postu horiez gain, adin desberdinetako umeentzako hamar bizipen zientifiko eskainiko dituzte, gune diferenteetan. Parte hartzeko izena eman beharko da, egunean bertan. 10:00etatik 14:00etara izango da feria.

Adimen Artifizialari buruzko sei ikastaro eskainiko ditu IMHk, doan

Adimen Artifizialeko prestakuntza espezializatuko sei ikastaro antolatu ditu IMHk, maiatza eta ekainerako. Sei modulu emango dituzte, doan, oinarrietatik hasi eta IAko estrategia aurreratuenak

lantzerara arte. Saio batzuk aurrez aurrekoak izango dira, eta beste batzuk online egiteko aukera ere egongo da. Izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko IMHra deitu behar da (943 744 132).

Iruiturri ingurua berritu dute

Duela 76 urte jarri zuen Morkaiko mendizale elkarteak iturria Iruiturrin, eta orain iturria bera eta ingurunea txukundu ditu Udalak. Inguruko zuhaitzak inausi, sastrakak kendu eta iturriaren ur kanalizazio-sistema osorik garbitu dutela azaldu dute. Era berean, iturri aurrean dauden mahaiaik eta eserlekuak berritu dituzte.

Kalamua eta Murkaiku mendien artean dagoen Oako-lauan eraiki zuen Morkaiko mendizale taldeak Iruiturriko iturria, taldearen fundatzaileetarikoa bat izan zen Jose Larreategi Zendoiairen omenez. 1948ko maiatzaren 16an inauguratu zuten, orain dela 76 urte. Zarauzko Club Deportivo eta Markinako Alpino Artibay



mendi taldeekin elkarlanean antolatu zuten festa giroko ekitaldian inauguratu zuten iturria, eta Euskal Herri osotik etorritako mendizaleek hartu zuten parte.

Bukatu dituzte Elgoibar eta Maltzaga arteko bidegorri zatia argiztatzeko lanak



2009an inauguratu zuten Elgoibar eta Maltzaga arteko bidegorri zatia eta 2020ko abenduan Eibar arte luzatu zuten. Maltzaga eta Eibar arteko tartea ireki zutenean agindu zuten agintariek Andikano eta Maltzaga arteko bide zatia argiztatuko zutela, Maltzagatik Eibarrera artekoa zegoen moduan. Joan zen irailean hasi zituzten argiztatzeko lanak, eta lau hilabetez bukatzea aurreikusten zuten arren, joan zen astean eman zituzten lanak amaitutzat. Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatu ditu argiteria-sarea instalatzeko lanak, eta 600.000 euro inguruko kostua eduki dute. Elgoibarko Udaletik esan dute behin baino gehiagotan eskatu diotela Aldundiari argiztapena ipintzeko, herritarren segurtasunari eragiten dion gaia dela-eta. Behin lanak amaituta, jarduera oso positibotzat jo du Udalak.

Belaunaldien arteko harremanak landu nahi ditu Atxutxiamaikak

Belaunaldien arteko harremanak landu nahi ditu Elgoibarko Izarraren Aisialdi Saileko Atxutxiamaiak taldeak, eta horretarako, 60 urtetik gorako herritarren iritzia ezagutu nahi ditu. Besteak beste, 60 urtetik gorakoen aisialdia nolakoa den ezagutu nahi dute, zer egiten duten denbora librean, zer atsegin duten... Horrez gain, ume eta nerabeekin nola harremantzen diren ere galdetuko diete. Aita Agirren egingo dute lan-saioa hilaren 14an, 17:00etatik aurrera. Segidan mokaduxoa egingo dute.

Sabelean plastiko zatia zuen arraina harrapatu du Kani Ibarluzeak



Urpeko arrantzalea da Juan Ignacio Ibarluzea *Kani* eta domekan itsaskabra bat arrantzatu zuen Deban, Sorginetxe inguruan. Labana sartu zionean sabelean zeozer gogorra zeukala ohartu zen, eta kolore gorria ikusi zuen. Txangurroren bat edo izango zela pentsatu zuen, baina sabela zabaltzean 8x8 zentimetroko plastikozko pieza bat aurkitu zuen. Iker Arrizabalaga lagun eta biologoaren bidez zabaldu du irudia, jendeak gai honekiko kontzientzia har dezan.

Agustin Lazarobaster hil da, Mendaron herrigintzari lotua egon den gizona

Agustin Lazarobaster Mendikute hil zen domekan Mendaron, 82 urterekin. Herrigintzari lotutako gizona izan zen, kulturgintzari emana. Mendaroko dantza-taldearekin lotura berezia izan zuen Lazarobasterrek



gaztetatik. Oso gazte zela hasi zen dantzan, eta gerra ostean, 50eko hamarkadaren bukaera aldera herrian sortu zen dantza-taldeko txistularia izan zen, Agustin Berasaluze eta Gregorio Vivesekin batera. Mendaro herria sortzeko batzordean ere parte hartu zuen, bai eta Guruzpe kultur elkartearen ere. Mendaroko Odol Emaileen Elkartearen sortzaile izan zen beste hiru lagunekin batera eta Trinitateko jai-batzordean buru-belarri jardun zen osasunak laga zion arte. Gabonetan, Olentzero eta Mari Domingiren gidari lanak ere egiten zituen, eta azkeneko boladan Mendaroko Gazteak taldekoen jantziatarako txintxarriak konpontzen ari zen.

MIREN VIVES Arkitektoa eta Projekta Urbeseko kidea



Miren Vives eta Patxi Galarraga arkitektoak.

Espazio publikoen erabilera eta herritarren beharrezko aztertzeke prozesu parte-hartzailea hasi du Mendaroko Udalak. Martitzenean egin zituzten prozesu horren baitako lehenengo hiru bilerak, Miren Vives (Mendaro, 1973) eta Patxi Galarraga (Zarautz, 1972) Projekta Urbes enpresako arkitektoek gidatuta, gaurko dute beste saio bat iragarrita (18:30ean) eta hilaren 14rako lotu dituzte beste bi bilera: adinekoentzako aurkezpen saioa (10:30ean, jubilatuetan) eta diagnostikoa egin eta proposamenak jasotzeko talde-bilera (18:30ean, udaletxean). Ingurune osasungarri eta inklusiboak irudikatzen laguntzeko enpresa da Projekta Urbes.

✍ Aina Argoitia 🗣 Gorka Rubio / Foku

■ ■ Mendaron nola bizi nahiko luketen pentsatzen jarri nahi ditugu herritarrak ■ ■

Hirigintzak zer eragin dauka gure egunerokoa?

Handia. Hirigintza gauza abstraktotzat daukagu askotan, baina espalo bat zabaltzeko erabakitik hasi eta plaza baten izaera zehazterainoko erabaki guztiak sartzen dira hor. Eguneroko ibilietan jabetzen gara zuhaitzak traban dauzkagula espaloietan, koskak dauzkagula bazter guztietan... Gauza batzuk onartuta daukagu gizarte gisa, baina erreparatu behar diogu espazio publikoaren okupazioari, askotan uste arren espazio hori denok modu berean okupatzen dugula beti ez delako hala izaten.

Bistan da gaizki dagoen guztiaren errua ez dela hirigintzarena, eta hirigintzak ez dituela, ezta ere, arazo guztiarentzako konponbideak, baina garbi izan behar dugu hirigintzan hartzen diren erabakiek guztioi eragiten digutela, eta gainera, denbora luzerako izaten direla. Horregatik, garrantzitsua da denon ikuspegia aintzat hartzea,

edo gutxienez saiatzea, onartuta, hori bai, beti egongo dela jende bat kaltetuagoa izango dena beste jende bat baino, herritar guztion bizi-baldintzak eta bizi-ohiturak ez direlako berberak. Baina hirigintza ez da neutroa. Ebidentzia zientifiko asko daude erakusten dutenak osasun kontuetan, adibidez, kode postala kode genetiko bera baino garrantzitsuagoa dela.

"Espazio publikoen berrantolaketa" irakurrita, ziur herritar askok ez dutela beren ardurako sentituko gai hau, eta hala dela ulertuta ere, izango dira beren buruari behar beste gaitasun edo ezagutza aitortzen ez diotenak. Zer esango zenieke?

Hain justu ere, horregatik nabarmendu dugu prozesu honetan ez ditugula hirigintzan adituak behar, baizik eta Mendaron bizi edo kalean denbora asko ematen dutenak. Mendaron nola bizi nahiko luketen pentsatzen jarri nahi ditugu. Eskatuko

diegu aztertzeke zer duten gustuko, noiz dauden gustura kalean daudenean, eta zerk ez duen bat egiten beren bizi-desioekin. Etorkizun desiragarriak imajinatu behar ditugu, kolektiboki. Ezin dugu pentsatu gure gauza desiragarriena astebetetz oporretara joatea izan behar denik. Egunerokoak izan behar du erakargarri eta sexya, eta helburu hori lortzeko pausoak ematen hasi, hirigintzako erabakiak kostata hartzen direlako baina behin hartzen direnean denbora luzerako izaten direlako.

Etxebizitzak saltzeko egiten dituzten infograma horietako bat irudikatu behar dute. Infograma horietan beti agertzen dira berdeguneak, haurrak kalean globoekin jolasean, adineko jendea pasiaran pozik, baina eraikitzen dituzte etxeak eta akabo infogrametako irudi eder horiek! Asko jota, eraikiko dute haurrentzako parke bat, jarriko dituzte eserleku batzuk traba gutxien egiten duten lekuan eta zeri begira egon ez dagoen tokietan, desagertuko dira zuhaitzak... Asfaltoaren neurriak, seinaleztapena eta obraren exekuzioa bikain zainduko dira, baina infograman suma daitekeen bizi-kalitate hori lortzeko gainerako faktoreak ez dira modu berean zaintzen. Genero ikuspegitik guk esaten dugu bizitza produktiboak (soldatapeko lana) sortutako arazo eta beharrei ematen zaiela erantzuna, baina bizitza erreproduktiboak (bizitza sostengatzen duen gainerako dena) sortutako beharrei ez zaiela modu berean erantzuten.

Esan gabe doa ez dela erraza hori lortzea, nahiz eta gero eta arkitekto eta soziologo gehiago dabilzan horretan pentsatzen. Baina misterio bat ere ez da. Garbi daukagu, adibidez, denoi gustatzen zaigula zerbait egiten ari den jendeari begira egotea. Bada, gauza bat badakigu; beraz, har dezagun kontuan hirigintza-irizpideetan.

Nago ikusmira hori Herriko Enparantzara mugatuegia dagoela Mendaron.

Bai, lehen gehiago egoten ginen gure auzoetan, aktibitatea gure auzoetan zegoelako, baina pixkanaka hori aldatzen joan da. Eta ez da bakarrik Herriko Enparantza sortu zelako izan, fenomeno hori herri guztietan gertatu delako gutxi-asko.

Desio dugun hori Otik hasita lortzea zaila bada, pentsatzekoa da are zailagoa izango dela eraikita dagoen herri bateko espazioak berrantolatzea. Ala? Nola planteatzen duzue prozesua?

Begirada zabaltzeko ariketa gisa. Etorkizuneko

"Ezin dugu pentsatu gure gauza desiragarriena urtean astebetetz oporretara joatea izan behar denik. Egunerokoak izan behar du erakargarria"

Mendaroko nolakoa izatea nahi dugun hausnartzeaz gain desio dugun hori lortzeko lehen pausoak ezartzea da prozesu honen helburua, herritarren parte hartzearekin. Aniztasuna, autonomia, eta eguneroko bizimodua edo zaintza erdigunean jarrita egingo dugu azterketa, eta herrian sumatzen ditugun gabeziez gain, dauden indarguneak eta aukerak ere jasoko ditugu. Aztertuko dugu zenbat gauzak duten eta izan dezaketen eragina hirigintzan, eta jabetuko gara gaur, askotan, norberari bakarrik eragiten diotela uste ditugun arazoak bihurtu ditzakegula arazo politiko; bihurtu behar ditugula. Hala, herriko espazio publiko garrantzitsuenak eta arazo larrienak identifikatuko ditugu eta zenbait jarduketa zehaztu, bai eta Mendaroko hiri-plangintzan nahiz hurrengo proiektuetan txertatzeko irizpideak proposatu ere.

Azalduko zeniguke adibide batekin?

Autoena da adibide argiena. Gaur egun, denok gaude autoa non aparkatu behar dugun pentsatzen; baita autorik ez dutenak ere. Japonian, aldiz, ezin da autorik erosi auto hori aparkatzeko lekua izango duzula ziurtatu ezean. Hemen, etxebizitzak eraikitzen direnean etxebizitza bakoitzeko auto t'erdirentzako lekua kalkulatu behar da. Eta arazo latza daukagu, jakina. Bartzelonan, hasita daude esaten etxebizitza bakoitzeko aparkatzeko ratioa 0,5era jaitsi behar dela; bi etxebizitzako plaza bat gorde behar dela alegia, ezin dugulako autoaren arabera erabaki dena. Egia da hiri bateko eta herri bateko funtzionamendua ezberdina dela, garraio publikoaren zerbitzua justukua denez, herri askotakoak autoa hartzera behartuta daudelako askotan lanera joateko. Ez gara jarri pentsatzen, baina, horrenbeste auto kalean izateak dakarren kaltean. Autoak, denborarik gehienez, geldirik daude, baina hala ere, baldintzatzen digute dena; ezin ditugu, adibidez, espaloiak zabaldu, aparkalekuak kentzea dakarrelako. Autoaren gaiak monopolizatzen ditu gaur egun eztabaida guztiak, baina gai izan beharko genuke une batez

begirada zabaltzeko eta nola bizi nahiko genukeen hausnartzeko. Herri txiki batean bost minutu oinez egitea ezin da arazo izan. Fred Kent arkitektoak esaten du autoetan eta trafikoan pentsatuz gero, emaitza beti izango dela auto eta trafiko gehiago.

Zu zeu mendarozara zara. Nola ikusten duzu herria?

Iruditzen zait Mendarok daukan neurrirako oso erraz ibili gaitezkeela oinez batetik bestera. Arazo bat badu: Garagartzara sartzeko sarbide bakarra duela eta trafiko handia pasatzen dela ikastola ondotik, baina aldi berean, ez zait iruditzen hain zaila inguru hori oinezkoentzako atseginagoa egitea, herrikoak direlako hortik pasatzen diren auto gehienak. Mendaron, gauza asko eraiki ziren oinezkoak ia inoren buruan ez zeuden garaian, baina Mendarok oso neurri polita dauka gauza asko konpondu ahal izateko. Kontrara, duen neurri txiki horregatik, zaila ikusten dut auzoak biziberritzea. Arazo hori dugula onartuta, oso interesgarria irizten diot, adibidez, Herriko Enparantza nolako nahiko genukeen eztabaida sortzeari.

Espazio publikoaz ari zaretenean kaleaz bakarrik ari zarete ala eraikin publikoen inguruan ere zabaldu nahi duzue gogoeta prozesua?

Bere horretan ez, baina interesatzen zaigu eraikin publikoen eta inguruaren arteko harremana.

Hiru aurkezpen bilera egin dituzue asteen, eta beste bi egitea daukazue aurreikusita, baina hilaren 14ko talde-bileran jarri nahi duzue arreta.

Aurkezpen saioak izan dira orain artekoak, baina bereziki hilaren 14rako deitu nahi ditugu herritarrak, bai. Taldetxotan banatuta egingo dugu lan 14koan, eta guretzat garrantzitsua da ahalik eta jende gehienak parte hartzea, ahalik eta mapaketa aberatsena egiteko. Hasieran asmoa beste bat bazen ere, erabaki dugu proposamen zirriborro bat eramango dugula hilaren 14kora eta haren gainean jardungo garela hizketan, lanak aurreratzeko. Taldean erabakiko dugu zerekin gauden ados, zerekin ez, zer aldatuko genukeen eta ekarpen horiek denak jasoko ditugu, irailerako. Irailean, beste lanketa saio bat egingo dugu elkarrekin, jasotako guzti horren inguruan. Guk geuk begiz jota dauzkagu herriko gune batzuk: Herriko Enparantza, Ikastola ingurua, Azpilgoetan Trinosako etxeen ingurua eta Garagartzan San Agustin buelta, eta Aranerrekako

pasealekua. Proiektu handiak dira, diru dezente eskatzen dutenak beharbada gauzatzeko, baina nora jo nahi dugun zehazten badugu, joango gara poliki-poliki horrako pausoak ematen. Helburua zehaztu eta hori lortzeko irizpideak markatu behar ditugu, etorriko diren proiektuetan txertatu ahal izateko.

Prozesu honetan, Mendaroko haur eta nerabeen beharrak jasotzeko saio berezi batzuk egitea ere aurreikusita dauka Oinherrik, herri hezitzaileak sustatzeko elkarteak. Zer dakizu horren inguruan?

Bai. Haur eta nerabeak ere herritarrak dira, pentsatzeko, adierazteko, sortzeko... egiteko modu propio bat dutenak, eta haien beharrak identifikatzeko behaketa-saio batzuk egitea aurreikusten du Oinherrik. Horretarako, Mendaroko haur eta nerabeen erreferente naturalekin elkarlana bilatuko dute lehenengo. Ondoren, ekaina-uztailean, behaketa saio bi egingo dituzte. Ekaineko egun batean Oinherriko kideek herriko plazan gertatzen dena behatuko dute, adierazle ezberdinetan oinarrituta: haurren adina, generoa, jolasa, haien arteko harremanak, espazioaren okupazioa... Uztailean egingo dute bigarren behaketa, baina behaketa horrek bestelako osagai batzuk izango ditu. Bestalde, herriko nerabeekin beste lanketa bat egitea ere aurreikusita dute, Gaztelekuko arratsalde batean. Iruditzen zait oso lanketa interesgarria dela eta aldi berean zaila, haurrei eta nerabeei ere kosta egiten zaielako amestea posible dela ez dakiten hori.

Aukerarik ikusten duzu zerbait aldatzeko?

Bai, amestuz gero. Herri naturalagoa, garbiagoa, lasaiagoa, isilagoa... egin daiteke. Kopenhagen, urtero, hiru aparkaleku kentzen ari dira hirigunean. Modu horretan egoteko lekuak irabazten ari dira. New Yorken eta Parisen ere izugarritzko marabillak ari dira egiten oso denbora gutxian. Parisen, Sena ondoan, lehen errepidea zena orain parke bat da. Bada, Parisen egin badaiteke, nola ezingo dugu egin ba hemen? ■

"Aniztasuna, autonomia eta eguneroko bizimodua edo zaintza erdigunean jarrita egingo dugu azterketa"



Amatau Mobila ekimeneko talde eragileko hainbat lagun.

KEZKAK BATUTA

LH6-ko ikasleen guraso talde batek eman zuen Amatau Mobila, Altxa Burua taldea sortzeko bidea. Lagunartean sakelako telefonoak agertzen hasi zirenean seme-alaben jolasteko modua aldatu zela konturatu ziren, eta horren kontra zerbait egin behar zutela pentsatu zuten. Iraila zen, ikasturte hasiera, eta ordurako beste herri batzuetan ere hasita zegoen pantailen erabileraren gaineko eztabaida. Bildu ziren dozena erdi bat guraso, eta lehenik eta behin, galdetegi bat bidali zieten beste gurasoei, egoeraren diagnostia egiteko. Kezkatuta ageri ziren gehienak, eta kezka horrek batu ditu. Telefonoa amaturu eta elkarrekin konektatuta nahi dute hemendik aurrerako bidea egin, taldean gauzak hobeto funtzionatzeko dutelako. Hilabete hauetako hausnarketa konpartitu zuten eguaztenean, Kultur Etxeko sotoan.

 Ainhoa Andonegi

Hogei bat lagun daude Amatau Mobila, Altxa Burua Elgoibarko talde eragilean, eta horietako hiru dira Ana Bereziartua, Ander Cristobal eta Naiara Ibarra. LH6ko hiru

ikasleren guraso dira, eta sakelako telefonoak euren arteko harremanetan eta jolasteko eran izan duen eraginak jarri zituen alertan: "Ikasturte hasieran konturatu ginen egoera aldatu egin zela. Lagun batzuk sakelakoa ekarri zuten, eta hasi ziren jolastu beharrean, denak pantailari begira egoten. Ez zuten hitzik egiten, telefonoko jolasen bidez erlazionatzen ziren, eta jakina, sakelakorik ez zeukatenak, etxera joaten ziren, aspertuta", azaldu du Ana Bereziartuak. Egoera larria iruditu zitzailela gehitu du Ander Cristobalek, eta Gabonetako opari modura denak sakelakoa eskatzen hasi zirela gogoratu du Naiara Ibarrek. Kezka hori beste guraso batzuekin konpartitu zuten, eta ikusi zuten bakoitzak bere errealitatea izan arren, kezka bera zeukatela guztiek. LH6ko ordezkariak bildu, eta lehenengo egoeraren diagnostia moduko bat egitea erabaki zuten, galdetegi baten bidez. Galdetegia erantzun zuten gurasoen %97k esan zuten seme-alabek sakelakoa erabiltzeko duten moduarekin kezkatuta zeudela, eta gurasoek egoera honen aurrean zerbait egin beharko luketela erantzun zuten 100%ek. Ekimen bateratu batean parte

hartzeko prest agertu ziren %89, eta %47k esan zuten ezagutzen zituztela inguruko herrietan sortzen ari ziren antzerako mugimenduak.

Konturatu ziren ez zeudela bakarrik guda honetan eta familia askoren arazoa zela. Beste herrietako esperientziak ezagutu nahi zituzten, eta Tolosara joan ziren hango taldearen bilera batera. Herri askotako ordezkariak bildu ziren han, eta bakoitzak bere bizipenak azaldu zituen, baina denek bat egiten zuten gauza batean: ezin ziren legedia arautu baten zain egon; horren aurretik gurasoek zerbait egin behar zutela. "Gipuzkoan indar handia hartzen ari da Altxa Burua taldea, eta Kataluniatik ere jaso dute deia hemengo mugimendua ezagutzeko. Gizarte osoa dago gai honekin kezkatuta, eta ezin gara legeak sortzeko zain egon. Neurri batzuk hartu behar ditugu denon artean". Zeregin horretan, herriko beste eragileen babesa ere nahiko lukete, dela kirol taldeak, kultur taldeak, musika eragileak... "Azken batean gure seme-alabak mugitzen diren gunetako eragileek ere zeresan handia dutela iruditzen zaigu, eta elkarlanean gauza asko lortu ditzakegula uste dugu".

LH6koek hasi zuten mugimendua, baina beheragoko mailetara ere zabaldu zuten taldera batzeko aukera, eta une honetan LH1etik LH6ra bitartekoak biltzen dira Amatau Mobila taldean. Talde irekia da, Elgoibarren haurrek sakelakoari ematen dioten erabilerak kezkatuta sortu den guraso ekimena. Ez dira adituak, kezkatuta dauden gurasoak baizik, eta egoera desberdinak ulertzeko eta partekatzeko gune bat sortu dute, inor epaitzeko asmorik gabe, seme-alaben ongizatearen alde lan egiteko. Familia guztien erabakiak errespetatzen dituzte, eta garbi dute ez diotela inori esango zer egin behar duen. Informazioa eman eta esperientziak partekatuz, kezka horri buruz hausnartu nahi dute. Elkarri entzunez ikasi nahi dute, beti ere, errespetu giroan. Helburu nagusia seme-alabei sakelakoa emateko adina atzeratzea da. "16 urteko adina aipatzen dute adituek egokia izan daitekeela, baina guk ez dugu adin zehatzik jarri, familia bakoitzak bere errealitatea daukalako. Ahal den gehien atzeratzea nahiko genuke, eta gutxienez

EBIDENTZIETAN OINARRITUTAKO KALTEAK

Sakelako telefonoa emateko adina atzeratzeak badauka bere arrazoa, izan ere azken ikerketek erakutsi dute pantailen erabilera goiztiarrak garapen kognitiboan kalteak eragiten dituela. Garapen sozioemozionalari eragiten dio, sedentarisismoa areagotzen du, loaren nahasmenduak sortzen ditu eta ikusmen arazoak areagotu, eduki desegokia ikusten dute, jazarpen zibernetikoa jasateko arriskua dago, eta batez ere, adikzioa sortzen du. "Hori guztia jakinda ezin genuen beste aldera begiratu. Gurasook ardura batzuk hartu behar ditugu, seme-alaben ongizatea bermatzeko".

Gurasoen egitekoak zehazteko, dekalogo bat onartu du Gipuzkoako Altxa Burua taldeak, eta horrekin bat egin du Amatau Taldeak ere, baina berera moldatu dute:

1. **Non:** Etxean, ordenagailua, kontsola, tableta... hobe leku amankomunetan.
2. **Zer:** Sarbideak, edukiak, jolasak... neska edo mutil bakoitzaren adin eta garapen mailarako egokiak izan daitezela.
3. **Errespetuz:** Beti eskatu baimena etiketatzeko, irudiak eta informazioa emateko... Kontuan hartu norekin partekatzen den informazioa.
4. **Zertarako:** Pantailak eta Internet helburu zehatzekin erabili, ez aspertuta zaudelako.
5. **Erabilera desegokia:** Hitz egin ikusmenean izan ditzakeen ondorioez, isolamenduaz, sedentarisismoaz, arreta galtzeaz...
6. **Noiz:** Errespetatu lo orduak, harremanak, ikasketak, bestelako jolasak...
7. **Nola:** Norberaren pribatutasuna eta intimitatea zainduz, norberaren datuak, informazioa eta irudia babestuz.
8. **Zenbat:** Haiekin bizi, ez haientzat. Adostu erabilera denbora.
9. **Alternatibak:** Beste aisia mota batzuk proposatu. Familian egin jarduerak.
10. **Beti:** Hitz egin, entzun, galdetu eta laguntza eskatu. Etxean ematen dugun ereduaz hausnartu.



ohitura batzuk aldatzea. Kalera telefonorik gabe irtetzea, esaterako, asko da".

KONPROMISOAK

Amatau Mobila taldekoek udazkenetik gaur arte egin duten hausnarketa konpartitu zuten eguaztenean Kultur Etxeko sotoan. Jende asko batu zen, eta argi ikusi zen kezka badagoela. Guraso aktiboak dira batzuk, lanean dihardutenak, baina guraso pasiboak ere oso aintzat hartzen dituzte, hau da, taldeak proposatzen duenarekin bat egiten dutenak. Hasteko konpromiso batzuk aurkeztu dituzte, denen artean adostuta eta taldean lan egitea errazagoa izango dela sinistuta. "Askotan gure seme-alaba bakarrik geratzeko beldurragatik ematen diegu sakelakoa, eta konpromisoak taldean hartuta, hori ebitatuko genuke". Lau dira proposatu dituzten konpromisoak, eta gurasoei eskatu diete ados dauden edo ez adierazteko. Konpromiso horiek biltzen dituen dokumentua gurasoen artean partekatuko dute modu fisikoan edota digitalean, nahi dutenek sinatu dezaten. Ikasturtez ikasturte konpromiso hauen jarraipena egingo dute, beti ere taldearen adostasuna bilatuz. Alboko koadroan dituzue konpromiso horiek:

1. 16 urte bete arte nerabeek sakelako telefono propioa edukitzea atzeratzeko konpromisoa hartzea: Adituek diote 16 urte bete arte garunaren garapenak ez duela nahikoa heldutasun eta gaztea ez dagoela prestatuta mugikorra izateko.
2. Internetera konektatu daitezkeen gailuak gune komunetan erabiltzeko konpromisoa hartzea: gailu komunak (tableta, mugikorra, bideo jokoak, ordenagailua,...) helduekin partekatutako gune zehatzetara mugatu.
3. Edukien kontsumo-denbora mugatzeko konpromisoa hartzea: Adituek edukien kontsumo denbora mugatu eta internetetik kanpoko beste jarduera mota batzuekin orekatu behar dela diote. Ordutegi eta egun zehatzak adostu, lo egin aurreko orduak, familiako orduak eta lagunen aisialdi denborak lehenetsiz.
4. 14 urte baino lehen sare sozialetan perfilik ez sortzeko konpromisoa: Gaur egun legeak hala arautzen duelako.

TELMO LAZKANO

Irakaslea, dibulgetzailea eta Osasun Saileko adikzio eta prebentzioen alorreko kidea

✍️ Ainhoa Andonegi

Nerabeen garrasia: osasun mentala aldaketa garaian liburuaren egilea da Telmo Lazkano (Zumaia, 1994). Maitane Ormazabal psikoterapeutarekin batera egin zuen lana, eta sakelako telefonoaren eta, oro har, pantailen erabilerak dituen arriskuez ohartarazi du liburuan. Elgoibarko Amatau Mobila taldeak eskatuta, Udalak gurasoentzako formazioa antolatu zuen, eta herritar askok hartu zuten parte. Lazkano irakaslea eta dibulgetzailea da, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin elkarlanean ari da adikzio eta prebentziorako proiektu batean. Espainiako Ministerioak ere espazio digital segurua sortzeko adituen mahai bat sortu du, eta hango kideetako bat ere bada.

Pantailen erabileraz kezkatuta, guraso taldeak sortzen ari dira hainbat herritan, seme-alabei sakeleko telefonoa ematea atzeratzeko. Nola ikusten duzu talde hauen sorrera?

Oso beharrezkoak dira talde hauek, eta funtzio oso garrantzitsuak dute. Legeak etorriko direla uste dut hau dena arautzeko, baina askotan lege horiek beranduegi etortzen dira, eta tarte horretan gai hau txikitik handira jorratu beharra dago. Familiak elkartuta, eskolekin, eta udalekin ere ahal bada, gure eskura dauden gauza asko egin ditzakegu pantailen erabilera egokiagoaren alde eta gure txikiengatik ongizatea hobetzeko. Azken hamarkada honetan argi geratu da smartphone-arekin dugun harremana ez dela sana, adikzio bilakatu da, eta horrekin batera gure adingabeen buru gaixotasunen eztanda bizi dugu. Gizarteak egoera honi erantzuteko beharra dauka. Gure txikiak ez dira arazoak, baizik eta arazoaren sintoma.

Erakundeek gai hau legez arautzen ez duten bitartean, zer egin dezakegu gure adingabeei eremu digital segurua eskaintzeko?

Gai honetan beste herrialde batzuk gure aurretik doaz, eta haiei erreparatzea oso interesgarria da. Estatu Batuetan, esaterako, 50 estatu federaletatik 41ek Meta enpresa auziperatu dute, buru gaixotasunak sustatzen dituela eta adingabeen artean adikzioa sortzen duela arrazoituta. Beraiekin bat egin dute



“Gurasoak izan behar dira eredu eta bidelagun”

Seattle-eko eskola batek ere, Kanadako beste batek, New Yorkeko batek... Hor dagoeneko hasita daude erakundeak gai honi aurre egiten. Familien partetik ere, gauza asko ditugu egiteko. Lehenik eta behin, gertatzen ari denaren gaineko kontzientzia hartu behar dugu. Hemen ez dago ezer kasualitatez, baizik eta kausalitatez dago guztia, eta kausalitate horren atzean dagoen arrazoi nagusienetarikoa telefonoa goizegi erabiltzen hastea da. Ebidentzian oinarritutako kontzientziazio sendoa behar dugu, eta horretarako garrantzitsua da informatzea, dela liburuak irakurriz edo formazioetan parte hartuz.

Eta, behin kontzientzia hori lantzen dugunean, zein neurri hartzea gomendatzen duzu?

Kontzientzia hori hartuta, gure inguruan ditugun tresna eta baliabideak jarri behar ditugu martxan, gure txikiak sakelakoarekin harreman osasuntsu bat izan dezaten, eta lan horretan



Telmo Lazkanok Elgoibarren eman zuen hitzaldiko argazkia.

gurasoak eredu eta bidelagun izan behar dira. *Nerabeen garrasia: osasun mentala aldaketa garaian* liburua idatzi nuen arrisku hauez ohartarazteko, eta hainbat gaitan jartzen nuen fokua. Hasteko, adina errespetatzea. 12 urteko ume bati, nahiz eta munduan dagoen formaziorik onena eman, ez genizkioke Ferrari auto baten giltzak emango, ezta? Ba telefonoarekin gauza bera gertatzen da. Ez badute gaitasunik, ezin zaie eman horrelako tresna bat, beraien garapen emozionala ez dagoelako tresna hori modu arrazional batean erabiltzeko prestatuta.

Kontuan izan behar dugu, baina, telefonoa erabiltzeko adina atzeratzeak ez duela ekarriko telefonoarekiko harreman osasuntsua, adina atzeratze hutsagatik. Formazio holistikoa behar dugu. Hausnartu beharra daukagu, esaterako, sare sozial hauek guztiek nola lortu duten horrelako dirutza egitea doakoak izanda. Aztertu behar dugu zein teknika psikologiko erabiltzen dituzten gu pantaila aurrean edukitzeko eta zein ondorio dituen horrek guztiak. Erabiltzeko baino laguntza handiagoa behar dute gure txikiek hor atzean dagoen guztia ulertzeko. Erabilera oso intuitiboa da, eta horretan abilak dira umeak, baina atzetik dagoen guztia ez dute ikusten. Legedia ere aipatzen dut liburuan. Legedia arautzaile baten beharra dago, izan ere, gaur egun erantzukizun guztia erabiltzailearen gainean dago, eta ez enpresengan, eta erabiltzailea adin txikikoa den bitartean, ardura hori gurasoengan dago. Hori ez dakit zein unetan normalizatu dugun, zeren eta telebista edo irratiarekin ez dugu horrela jokutzen.

Umeei telefonoa emateko adina atzeratzea aipatzen da behin eta berriro, baina zein adin izango litzateke egokia telefonoa emateko?

Adin zehatz bat esatea ez da erraza, baina gai hau autoen erabilerarekin konparatu daiteke,

"Sare Sozialak geratzeko etorri dira eta oso erabilgarriak izan daitezke ezagutza eta erabiltzeko gaitasun nahikoa dugunean, baina ordura arte oso arriskutsuak dira"

nahiz eta autoak ez daukan sare sozialek duten nortasunik. Ardatza jarri dugu ondo edo gaizki erabiltzean, baina eskuko telefonoaren gaian oinarri hori ez dakit oso zilegia den, izan ere oinarri hori hartuta ardura guztia erabiltzailearengan jartzen ari gara, eta teknologia produktu hauen benetako nortasuna hutsaltzen dugu; eta ez da teknologia neutro bat. Ez gara ari bizikleta nola erabiltzen den irakasten; ari gara pertsona bati laguntzen gaitasunak garatu ditzan zerbait oso adiktiboarekin harreman osasuntsu bat izateko. Eta gaitasunak garatu gabe baditu, ez da erabiltzailea izango, baizik eta erabilia, eta ondorio larriak jasango ditu: atentzioa jartzeko arazoak, buruko gaixotasunak... Hor sortzen dira gero gurasoen frustrazioak, askotan saiatzeko garelako 12 urteko ume baten gaitasunak garatzen eta ez dugulako lortzen. Teknologia oso adiktiboa jartzen ari gara gaitasunik ez duen umearen eskura. Eta hau mundu mailako arazoa da. Kontraesana dirudi, baina familia kalteberetan ematen da produktu hauen kontsumorik handiena. Batez beste, egunean bost orduz erabiltzen dute sakelako telefonoa familia horietan, eta aldiz, produktu hauek saltzen dituzten enpresetako familietako umeek ez dituzte minutu batez ere erabiltzen, 16 urte izan arte. Horrek zer pentsatua ematen du.

Autoa ere erreminta oso potentea da eta gure bizimodua erraztu du zentzun askotan, baina aldi

berean, heriotza asko eragin ditu, eta horregatik 18 urtera arte ezin da gidabaimenik eskuratu. Formazio baten ondoren eta heldutasunera iritsitakoan ateratzen dugu gidabaimena, eta hala ere, hildakoak egoten dira. Horregatik ez ditugu autoak kenduko, baina auto seguruagoak eskatu ditugu eta segurtasun neurriak hartu dira. Sare sozialak geratzeko etorri dira, eta tresna oso erabilgarriak izan daitezke ezagutza eta erabiltzeko gaitasuna dugunean, baina ordura arte oso arriskutsuak dira. Adina errespetatu egin behar da, baina horrez gain, behar ditugu tresna seguruagoak eta formazioa. 14-16 urte bitartean badute gaitasuna ulertzeko zer dagoen pantailaren atzean eta horrek guztiak izan ditzakeen ondorioak, beraz, adin horretan formazioa eman daiteke, eta erabilera didaktikoa egin, gurasoen telefonoa erabilita. 16 urterekin eman dakieke beren telefonoa, baina beti ere bidegalun bat jarrita, eta kontratu edo arau batzuk zehaztuta. 16-18 urte bitartean praktikaldi moduko bat egin daiteke, eta 18 urterekin bakarrik moldatu daitezke, euren direlako egiten dutenaren erantzule.

Ziberjasarpen kasuak ere %38 handitu direla argitaratu berri du Jaurlearitzak.

Mugikorrek ditugunetik ziberjasarpena izugarri zabaldu da, eta hori da adingabeen artean suizidiorako kausa nagusia; batez ere, 16 urteren bueltan ematen dira. Buruko gaixotasun kasuak ere nabarmen egin dute gora, eta korrelazio estua dute eskuko telefonoaren erabilerarekin. Eskoletatik lagundu dezakegu gai honetan ere, nahiz eta ardura gehiena familian egon. Hezkuntza Sistemak dio norbanako kompetenteak sortu behar ditugula gizartean bizirauteko, eta gizartea digitalizatua dagoen heinean, kompetentzia digitalean garatu behar ditugu txikiak. Iruditzen zait hor eskolak asko egin dezakeela, baina ahaztu gabe erantzukizun handiena etxean dutela.

Beste gai bat da hezkuntzaren digitalizazioa. 2009-2012. urteen inguruan hasi ginen EAEko eskoletan Eskola 2.0 programarekin Europarekin bat eginez, eta PISA txostenaren arabera, gure ikasleen maila kognitiboa jaitsi egin da, bereziki irakur ahalmenean eta matematiketan. Horrek lotura estua du hezkuntzaren digitalizazioarekin. Mateo efektua aipatzen dute kasu honetan. Efektu horrek esan nahi du tresna bat oso eraginkorra izan daitekeela pertsona batzuentzat, baina kaltegarria beste batzuentzat. Adibidez,

kalkulagailu zientifiko bat matematikari batentzat oso erabilgarria da, baina batuketak eskuz egiten ez dakienari kalkulagailua emateak dependentzia sortzen du eta ez dio balioko batuketak egiten ikasteko. Gauza bera ordenagailuarekin: kazetari batentzat oso eraginkorra da bere testuak sortzeko, baina eskuz idazten ez dakienari boligrafoa eman beharrean teklatua ematen badiogu, oinarrizko garapenak oztopatzen ari gara. Lehen Hezkuntzan lortzen dira oinarrizko gaitasun horiek, eta adin horietan teknologia erabiltzeak neurri batean gaitasun horien garapena oztopatzen du. Ez dago ebidentziarik teknologiak balio erantsirik ematen duenik hezkuntzan, eta aldiz, arreta jartzeari kalte egiten dio. Batuketa bat ondo egiteagatik musika, argiak eta puxiak agertzen bazaizkio umeari, gero ezingo diogu irakatsi zuri-beltzeko liburu bat irakurtzen. Berriz diot: teknologia hauek guztiak saltzen dituzten enpresetako nagusien seme-alabak joaten diren eskoletan ez dute teknologiarik erabiltzen. 0-6 urteen artean garuna oso flexiblea da, eta garun hori estimulatu den moduak zerikusi handia izango du etorkizunean. Gu geu ere astebetetz bideoak ikusten egongo bagina, kosta egingo litzaiguke gero liburu bat irakurtzea, baina umetan hori landu dugunez, egin dezakegu atzera, atentzio gaitasuna landuta dugulako. Hori behar den momentuan garatzen ez bada, gero zaila izango du ikasten.

Nik uste dut Hezkuntzak ebidentzia akademikoan oinarritu behar duela, eta ez da nahikoa esatea kalterik ez dakarrela pantailaren erabilerak. Nire ustez, balio erantsi bat eman behar du, eta hori demostratzen ez den bitartean, alboratu egin beharko lirakeke gailuak. Kompetentzia digitala garatu behar dute, bai, baina horrek ez du esan nahi ikasgai guztiak teknologia digitalaren bidez ikasi behar dituztenik. Lehen Hezkuntzatik teknologia alboratu egin behar da, eta oso momentu puntualetan bakarrik erabili. Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan ere oraindik ikasketa analogikoa lehenetsi beharko litzateke, eta bigarren zikloan teknologiararen erabilera gehitu. Demonstratuta dago pantailak distrakzioa areagotzen duela, eta distraituta dagoen umeak ez du ikasten.

"Ez dago ebidentziarik esateko teknologiak balio erantsia ematen duela hezkuntzan"

'Xabier Leteren poesia eta kantagintza' hitzaldia emango du Alex Gurrutxagak, Elgoibarren

Xabier Leteren ibilbideaz eta bere obraz jardungo du Alex Gurrutxaga EHUKo irakasleak (Zarautz, 1988) Elgoibarren, maiatzaren 15ean (eguztana). Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak eta Elgoibarko Udalak antolatu dute hitzaldia, *Zergatik eta zertarako euskaldun?* egitasmoaren baitan, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurilaritzaren laguntza izan dute horretarako. Hitzaldia Aita Agirre kulturgunean emango du Gurrutxagak, 18:00etan hasita.

Xabier Leteren obrari buruz egin zuen doktore tesia Alex Gurrutxagak, eta *Aberriaren poeta kantaria* liburua argitaratu zuen Alberdaniarekin 2020an. Elgoibarren, poetaren obraz eta bere ibilbideak bereiztu ziren aro nagusiez arituko da,



gako estilistiko nahiz filosofiko nagusiak azalduz. Leteren ibilbidea dagokion testuinguruarekin lotuko du Gurrutxagak, hala beste sortzaileak gogoan hartuz nola Euskal Herriaren aldaketak aipatuz. Antolatzaileek aurreratu dute parte-hartzaileek aukera izango dutela euren intereseko poema, abesti eta gaien inguruan hitz egiteko.

Maiatzaren 31 arteko epea dago

Txirristaka Saria bertsopaper lehiaketarako lanak aurkezteko

Eusebio Mugertza *Txirristaka* bertsolariaren jaiotzaren 150. urtemugako ekitaldien barruan eta bertsolaritza eta bertso jarrien idazketa sustatzeko helburuarekin, Txirristaka Saria bertsopaper lehiaketa antolatu dute In Leike kultur elkarteak, Mendaroko Udalak eta herritar talde batek elkarlanean, eta maiatzaren 31n bukatuko da lehiaketarako lanak aurkezteko epea. A, B eta C kategoriak bereiztu dituzte eta kategoria guztietarako gaia *Alkate izan nahi dut* izango da, Txirristakaren bertso sorta ezagunenetakoko bati erreferentzia eginez.

A kategoria 2010ean edo ondoren jaiotakoentzat izango da, eta Debabarrenekoek bakarrik parte hartu ahal izango dute. Gutxienez bi bertso eta gehienez lau osatu beharko dituzte. B kategorian, berriz, 2006 eta 2009 urteen artean jaiotakoek parte hartu ahal izango dute, eta gutxienez lau bertso eta gehienez zortzi sortu beharko dituzte. C kategorian, azkenik, 2005ean eta lehenago jaiotakoek parte hartuko



dute eta 8-12 bertso osatu beharko dituzte. B eta C sailetan Euskal Herri osoko bertsozaleek parte hartu ahal izango dute.

Lanak aurkezteko bi modu daude: posta arruntez, Mendaroko udaletxera bidalita: (Mendaroko Udal. Herriko Enparantza, 1. 20850) edo Udalaren webgunean eskegi duten formularioa beteta.

Dantzari Bakarlarien Emanaldia, gaur, Elgoibarren

I nazio Bereziartua Dantza eta Musika Eskolak Dantzari Bakarlarien Emanaldia antolatu du gaur iluntzerako. Kalegoen plazan izango da emanaldia, 19:30ean hasita. 12 eta 20 urte bitarteko honako bederatzi dantzari hauek parte hartuko dute: Haizea Luluaga, Unax Ansola, Uxue Cabrera, Malen Galarraga, Jon Etxeberria, Eneko Etxaniz, Markel Goenaga, Maddalen Oñederra, eta Jone Gil. Aurten txapelketan dantzatu direnak dira batzuk, eta aurreko urteetan ibilitakoak besteak. Guztira hamar dantza egingo dituzte, tartean,



txapelketakoak eta tradiziozkoak, bai eta pare bat muntai koreografiko ere.

'Antzerki ferekak' antzezlan

aurkeztu dute jubilatuen elkarteko Jubi Antzerki Taldekoek



Gloria Santiago, Rosa Mata, Mari Tere Arakistain, Coro Fernandez, Loli Outumuro eta Maite Txurrukak osatzen dute Jubi Antzerki Taldea eta iaz eman zuten antzerkirako jausia, Taupada taldeko Edurne Lasa eta Joxemari Larrañagaren eskutik. Mikroantzerkiaren bi ale aurkeztu zituzten. Lehenengoan moja papera hartu zuten, eta bigarrenean, udatiar paperean. Bi obra horiek abenduan jubilatuen egoitzetakoek Donostian egingo duten antzerki topaketan aurkeztekoa duten obra nagusiaren bi pieza dira.

Elgoibarko, Iruñeko Alde Zaharreko, Txantreako eta Bergarako erraldoien topaketa, bihar

Erraldoien topaketa egingo dute bihar Elgoibarren, hirugarrenegoz, eta oraingoan Iruñeko Alde Zaharreko, Txantreako eta Bergarako konpartsek hartuko dute parte, Elgoibarko Erbuze taldearekin batera. 17:30ean hasiko dute topaketa, baina ordu erdi bat aurretik ikusgai izango dira plazan erraldoi guztiak. Mauxitxa txarangak girotuko du musikaz kalejira.



Jon Lizarralde eta Arantza Aginako erraldoiek badituzte beren miniaturak



Iaz, Haritz Euskal Dantzari Taldearen 50. urteurrenaren harira, Jon Lizarralde eta Arantza Aginako dantzarien erraldoiak sortu zituzten Elgoibarko Udalak eta Erbuze Elgoibarko Erraldoi, Buruhandi eta Zezenzikleten konpartsak, eta orain, "elgoibartarren eskariari erantzunez", erraldoi horien miniaturak sortu dituzte. Aszensio Altzola eta Katalina Ibarra Altzolakoaren figura txikiei beste bi gehitu zaizkie beraz. Erraldoi txikiak Azkue (San Bartolome kalea, 26) eta Pitxintxu (San Frantzisko kalea, 27) dendetan erosi ahal izango dira asteburu honetatik aurrera.



Sua Enparantza, euskaratik eta euskaraz

Euskararen erabileran izan den apaltzearekin kezkatuta, herriko haur eta nerabeei erreferente euskaldunak gerturatzeko programa abiatu dute In Leike kultur elkarteak eta Mendaroko Udalak elkarlanean. Egitasmo horren baitan, Aitziber Garmendia aktorea (Zaldibia, 1982) ekarri zuten apirilaren 15ean herrira, eta Sua Enparantza dantzari eta aktorea (Donostia, 2003) gonbidatu zuten joan zen barikuan.

✍ Aina Argoitia 🗣 Ainhoa Andonegi

Seiretarako iragarria zuten solasaldia, baina bostetarako udaletxeko eskaileretan ilara egiten zeuden hogeit bat urte, koaderno banarekin. Sua Enparantzaren zain zeuden, Areneren zain haien berbetan, izen horrekin ezagutzen zutelako gehienek barikuko protagonista. *Irabazi arte* telesaila izan da Enparantzak telebistarako egin duen estreinako lana eta sekulako oihartzuna lortu du haur eta nerabeen artean. Baina aktore ez ezik, dantzaria ere bada Sua, edo "bereziki dantzaria" da, eta dantzaren inguruan hizketan hasi zuen solasaldia Mendaron. 5 urte zituela hasi zen euskal dantzak ikasten, Oinkari dantza taldean aritu da, dantza estilo ezberdinak probatu ditu euskal dantzetatik hasi eta urbanoetara artekoak, eta gaur egun Kukai konpainiarekin ere badihardu. Fikzioan, ordura arte gizonezkoena zen klubean, nesken

futbol taldea sortzeko borroka lideratu du, baina kontrakoa bizi du dantzan: nahi baino mutil gutxiago ikusten ditu urtetik urtera dantzan eta genero-rolak hautsi beharraz aritu zitzaizen haurrei.

Dantza eta musika izan ditu gustuko umetatik. Gitarra ere jotzen du, eta kantuak ere sortu ditu Janitz nebarekin. Hain justu afizio horrek zabaldu zion telebistarako atea ere. *Goazen* telesaileko castingerako eman zuen izena, baina *Irabazi arte* telesailerako aukeratu zuten eta trebatu behar izan zuen futboleant, neba gazteagoetako bat irakasle zuela. Ez dago nahi izatea baino gauza hoberik ikasteko. Paper nagusia eman zioten, eta ezezaguna izatetik Euskal Herriko gaztetxoan artean ezaguna izatera pasatu zen, kolpera. Aitortu zuen "oso gogorra" egin zitzaiola, antsietatea

eragiteko modukoa, eta eskerrak eman zizkien taldeko psikologoei, hori guztia kudeatzen laguntzeagatik, bai eta *Goazen* telesailekoei ere buruko osasuna zaindu beharraz ohartarazteagatik. Aritu zen telebista munduko lehiatz, urduritasunaz eta presioaz, bai eta elkarren arteko zaintzak mundu horretan duen

garrantziaz ere, eta bukatu zuen Gure Zirkuaz hitz egiten. Euskaratik eta euskaraz sortutako proiektu horretan topatu duen babesaz eta goxotasunaz aritu zitzaizen entzuleei, azpimarra eginez hizkuntza eta zaintza kontuetan, eta aurreratu zuen denboraldi honetan zirkoan arituko dela trapezista, sokekin.

Laburrean

✓ Erreferente euskaldun bat?

Aitziber Garmendia.

✓ Egunerokoan zer gorroto duzu?

Oso goiz esnatzea. Iratzargailua.

✓ Umetan irakurri zenuen liburu gustuko bat?

Mariasun Landaren 'Galtzerdi suizida bat'.

✓ Kantu bat...

Ken Zazpiren 'Malen'.

✓ Eskolan zeintzuk ikasgai zenituen gustukoak?

Plastika, gizarte eta euskara.

✓ Eta, kontrara? Zeintzuk zenituen trabestuta?

Matematika, fisika eta teknologia.

✓ Musika talde bat?

Ken Zazpi.

✓ Dantzari bat?

Leire Dalas.

✓ Kirolari bat?

Nerea Izagirre.

✓ Gustuko jaki bat?

Berdurekin egindako fajitak.

✓ Opor leku bat?

Tenerife.

✓ Amets bat?

Disko bat grabatzea.

✓ Miresten duzun norbait?

Gurasoak.

✓ Ezagutu nahiko zenukeen leku bat?

Australia.

✓ Zerk sutzen du Sua?

Injustiziak.

✓ Euskarazko berba polit bat?

Baliteke.



Harmailak bete egin dira boxeo jaialdian



Boxeo jaialdiak inguruotan ohikoak ez diren barren, kirol hau Deba bailaran zabaltzeko ahaleaginean dihardu Sorabox taldeak, eta asmo horretan hamar borrokaldiz osatutako amateur mailako boxeo jaialdia antolatu zuen Ixa Rodriguezek gidatzen duen taldeak Olaizagako kiroldegian. Harmailak ikuslezz beteta zirela jokatu zituzten hamar borrokaldiak. Ikusle gehienak Elgoibartik kanpokoak ziren, boxeolari bat edo

beste animatzera etorritakoak gehienak, eta ageri-agerikoa zen zein animatzera etorriak ziren, euren boxeolaria ringera igoten zenean. Soraluzetik etorri zen jende gehien, Sorabox taldeko Unai Yanguasen debuta ikustera, eta giro beroa sortu zuten euren animoekin. Boxeolari askorentzat jendaurrean borrokatu ziren aurreneko aldia izan zen. Emaitzak eta irudi gehiago: barren.eus webgunean. 🥊 Asier Orbea



Ailegatu dira Senegalera C.D. Elgoibarrek bidalitako kirol arropak

Iaz arte C.D. Elgoibarko jokalariek erabilitako kirol arropak (kamisetak, galtza motzak eta zenbait galtzerdi) Senegalgo Dionewar herrira eta Dakar hiriburura ailegatu berri dira. Senegaldar eta euskaldunetz osatutako irabazi asmorik gabeko Bergarako Ndank Ndank elkartearen bitartez bidali dute arropa Afrikako herrialde horretara. Bergarako Kirol Elkarteok eta C.D. Elgoibarrek emandako kirol-arropak bidali dituzte oraingoan.



Argazki rallya antolatu du C.D. Elgoibarrek zapatutako

Mintxetan futbolaren inguruan sortzen den giroa, "futbolaren mundua", argazkietan jaso nahi du C.D. Elgoibarrek, eta horretarako argazki rallya antolatu dute estreinakoz, Ongarriren eta Txankakuaren laguntzarekin. Parte hartu nahi dutenek Mintxeta barruan egin beharko dituzte argazki guztiak zapatuan, maiatzaren 11n, 10:30etik aurrera. Futbolarekin zerikusia duten era guztietako argazkiak atera ahal izango dituzte. Argazki kamerarekin atera beharko dira argazkiak eta ez dituzte sakelako telefonoekin ateratakoak onartuko. Bakoitzak bost argazki aurkeztu ahal izango ditu. Interesatuak 09:00etatik 10:00etara bitartean eman beharko dute izena Mintxetan. Irabazleak Txankakua elkarteak komertzioetan gastatzeko 180 euroko saria jasoko du,



eta 100 euroko erosketa bonoa izango da bigarrenentzako saria. Lau saritu izango ditu hirugarren sariak, bakoitza 30 eurokoa. Azkenik, publikoaren argazki gogokenak 100 euroko saria jasoko du. Lehiaketara aurkeztutako argazkiak sarean jarriko dituzte ikusgai, eta jendaurreko erakusketa bat egiteko aukera aztertzen ari dira.

Bastoiak erabiltzen erakusteko ikastaroa emango du Iñigo Larizek



Mendiko lasterketetan bastoiak erabiltzeko tekniken inguruko ikastaroa antolatu du CATT Morkaiko maiatzaren 15erako, eguaztenerako. Iñigo Larizek emango du ikastaroa. Bastoiak egoki erabiltza lasterketetan izan dezaketen onurez arituko da Lariz, eta ingurunearen arabera erabili daitezkeen teknikak azalduko ditu. Alde teoriko labur bat eta praktikoa izango ditu ikastaroak. Kultur Etxeko sotoan emango dute alde teorikoa, 17:00etan. Gero, bastoiak probatzera joango dira mendira. Irteera horretarako bastoiak, arropa eta oinetako egokiak eramateko eskatu dute antolatzaileek. Izena emateko eta informazio gehiagorako: cattmorkaiko@hotmail.com eta Instagramen [@cattmorkaiko](https://www.instagram.com/cattmorkaiko) kontuan.

Lau domina irabazi ditu Uxue Etxeberria gimnastak Gipuzkoako txapelketan



Gimnastika Erritmikoko Gipuzkoako Txapelketa jokatu zuten maiatzaren 4an Tolosan, eta lau domina eskuratu zituen Uxue Etxeberria elgoibartarrak Eibarko Ipurua taldea ordezkatzuz. Amateur A mailan lehiatu zen, eta hiru ariketa egin zituen: taldekakoa, bakarka uztaiarekin eta bakarka zintarekin. Guztietan emaitza bikainak eskuratu zituen. Urrezko domina irabazi zuen uztaiarekin bakarka eginiko ariketan,

eta zilarrezko beste hiru domina leporatu zituen: bat taldekako ariketan, beste bat zintarekin egindako arikeragatik; eta, azkena, uztaiarekin eta zintarekin egindako ariketegatik, sailkapen orokorrerako bi ariketen puntuazioa bateratzen baitute. Etxeberriak eta bere taldekideek Durangon jokatu duten Euskadiko txapelketan dute orain begia jarrita. Taldeka lehiatuko dira lehenengo, maiatzaren 26an, eta gero bakarka, ekainaren 1ean.

Angel Ibarluzea, podiumetik jaitsi gabe

San Migel taldeko bolari Angel Ibarluzeak emaitza bikainak eskuratu ditu Gipuzkoako Hiru Txirlo txapelketako azken bi jardunaldietan. Irabazi egin zuen Leintz Gatzagan jokatuako tiraldia, plenoa eginez gainera: egin zituen hiru jaurtialdietan 9 txirlo botata. Gero, hurrengo astean, hirugarren postua eskuratu zuen Soralezeko Ezosi auzoan jokatu zuten jardunaldian. Emaitza horiei esker, sailkapen nagusiko laugarren postura egin du gora Ibarluzeak. Soralezeko San Andres bolatokian jokatu dute zortzigarren jardunaldia, maiatzaren 11n.



Futbol zelai txiki bat gehiago izango du Mintxetak



Igerilekuen aldean dagoen berdegunea modukoa sortuko dute Mintxetako futbol zelaiaren beste aldean, gaztetxoek entrenatzeko tokia izan dezaten eta helduagoek beroketa ariketak egiteko. Horrez gain, Mintxeta aisialdi gune bat izanik, herritarrek ere etekin handiagoa atera ahalko diote gune berri horri, Udaletik azaldu dutenez. Belar artifizialezko berdegune berriak 40 x 20 metro koadroko azalera izango du, eta eraiki ahal izateko atletismoan aritzeko bertan dagoen zuloa kenduko dute, gainean belar artifiziala jartzeko.

Mayi Mujika bigarren, Domusa Teknik 40 MLK mendi lasterketan



Lagun Onak mendi bazkunak antolatuta, bi mendi lasterketa jokatu zituzten zapatuan Azpeitian: Domusa Teknik 40 MLK ultra trailaren hirugarren edizioa eta Domusa Teknik 15 MLK probaren lehen edizioa. 550 korrikalarik hartu zuten parte ultra distantziako proban (65 km.), eta 250 antxitxikarik 26 kilometroko proba motzagoan. CATT Morkaiko taldeko ordezkari ugari aritu ziren lehian ultra distantziako proban (elgoibartarren emaitzak *barren.eus*-en). Denetan azkarrena, baina Mayi Mujika izan zen. Bigarren postuan sailkatu zen emakumezkoetan, 07:14:02ko denborarekin. Gemma Arenas irabazleak baino 9 minutu gehiago behar izan zituen. Arenasek probako errekorra ondu zuen 07:04:56ko

denborarekin, iaz Oihana Azkorbebeitiak ezarritako marka lau minutu eta hamazazpi segundoa onduta. Ultra distantziako Euskal Herriko Kopako bigarren proba puntuagarria izan zen Azpeitikoa. Kopako aurtengo nobedadeetako bat da parte hartzeko nahitaezkoa dela izena ematea. Azpeitian lehiatu zirenen artean Mayi Mujika izan zen Koparako izena emanda daudenen artean azkarrena. Mujikak bigarren postua lortu zuen Kopako lehen proban, Enkarterri Extreme ultratrailan, eta Domusa Teknik 40 MLK probako lehen postuari esker, sailkapen nagusiko bigarren postuan dago orain, 206 punturekin. Oihana Azkorbebeitia mendi korrikalaria da Kopako liderra 208 punturekin.

Mendizaleen egun handia, bihar

Morkaikoren Eguna izango da maiatzaren 11 Elgoibarren. Goizean goizetik mendizalez beteko dira herriko kaleak eta inguruko mendiak. 210 bat lagun daude izena emanda Elgoibarko Mendi Itzulia egiteko. 41 kilometroko ibilbidea osatzen dute normalean, baina hiru bat kilometro laburragoa izango da aurten Altzolan trenarentzat egiten ari diren tunel berriaren obrak direla-eta. Altzolara beharrean, Lerun parera jaitsiko dira mendizaleak, Morterikatik pasa eta Ziardaraino igoteko. 06:00etan irtengo dira Kalegoen plazatik. Umeek Itzultitxoan parte hartzeko aukera izango dute. 08:30ean irtengo dira Kalegoen plazatik, eta 10:00etan, Idotorbetik. 270 bat lagun daude izena emanda Itzultitxorako. Horietako askok



dominak jasoko dituzte gero, Finalisten Eguneko dominak banatzeko ekitaldian, 13:30ean Kalegoen plazan. Arratsaldean, berriz, Txitxibildiko emakumeak izango dira aitortza jasoko dutenak, azken lau hamarkadetan emakume mendizaleen ahalduntzea ikusarazteko egun duten lanagatik.

LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, etxeko langile moduan nahiz orduka. Ospitaleetan zaintza lanak egiteko ere prest. Erizaina naiz lanbidez eta titulu sozionarioa daukat hemen lan egiteko. **643 505 662**

Adinekoak zaintzen nahiz garbiketa lanetan arituko nintzateke, orduka. **643 505 827**

Adinekoak zainduko nituzke, astean zehar orduka. Gauzez edo asteburuetan lan egiteko ere prest nago. Garbiketa lanak ere egiten ditut. **600 082 254**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. **655 390 844**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egiten ditut. Esperientzia handia daukat, eta geriatriako hainbat ikastaro dauzkat eginak. **603 262 842**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Orduka, asteburuetan ere bai. **643 903 039**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka, gauzez edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat. **632 229 972**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egiten ditut. Orduka edo etxeko langile moduan. **674 535 912**

Adinekoak zaintzen, eraikuntzan peoi moduan edo garbiketa lanetan aritzeko prest nago. Oso arduratsua naiz eta esperientzia handia daukat. **632 708 954**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka nahiz etxeko langile moduan. Gauzez ere lan egiteko prest nago. Esperientzia handia daukat. **602 613 594**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. Garbiketa lanetan ere jarduteko prest. **624 841 714**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. Etxeko langile moduan ere bai. **655 390 844**

Adinekoak zaintzeko prest nago, gauzez edo orduka. Esperientzia daukat. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. **611 215 176**

Eskaintza

Aho hortzetako hingenista behar da. Berehalako kontratua eskaintzen da. Bidali cv. **hortzklinika.06@gmail.com.**

GARAJEAK

Marradun garajea erosi edo alokatuko nuke Iñiguez Karkizano edo inguruko kaleetan. **688 616 714**

ETXEBIZITZAK

Gutxienez bi logela dituen etxea hartuko nuke alokairuan, Elgoibarren. **614 841 714**


OSPAKIZUNAK

1964an jaiotakoek bazkaria, ekainaren 22an, Sigma jatetxean. 13:00etan elkartuko dira Foruen plazan argazkia ateratzeko. Ondoren, luntxa, eta 14:30ean bazkaria. 70 euro sartu behar dira ekainaren 8rako Laboral Kutxan. ES28 3035 0007 26 0071144881.

1959an jaiotakoek kinto ospakizuna ekainaren 8an. Marem tabernan batuko dira 13:00etan eta Sigman bazkalduko dute 14:30ean. 70 euro ordaindu behar dira maiatzaren 15erako. Laboral Kutxa: ES35 3035 0007 27 0071144803

  <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Jabeen azken batzarrean ez zen akordiorik lortu komunitateari dagokion gai batean. Jakin nahi nuke gehiengorik lortzen ez denean posible den gai-zerrendako puntu berarekin beste batzar batera deitzea eta, hala bada, deialdian gutxieneko eperen bat errespetatu behar den.</p> <p>Legeak ez du debekurik ezartzen, eta ez du epe jakin bat igarotzea eskatzen gai bat beste jabeakideen batzar batean eztabaidatzeko eta bozkatzeko eskaera berriro aurkezteko. Ezin da debekuaz hitz egin; izan ere, jabeen batzarrak iritzia alda dezake jabeen informazio berri edo hobearen ondorioz edo aurreko bozketan kontuan hartutako inguruabarrak aldatzearen ondorioz, bozketa horretan ez baitzen inolako akordiorik lortu. Legeak ez ditu behartzen jabeakideak ekitate-judiziora jotzera adostasunik lortu ezin bada, baina horretarako ahalmena ematen die. Beraz, baliteke mekanismo horretara ez jotzea eta akordio bat lortzeko ohiko zein ezohiko beste batzar batera deitzea akordioa lortzeko.</p> <p>Ondorioa: Kontua ez da lortutako akordio lotesleak aldatzea, baizik eta jabeen arteko akordiorik ez dagoenean ekitea. Akordioa beste batzar batean hartzen bada, azkenean lortutako Komunitatearen borondatea babestu behar da. Beraz, esku-hartze judiziala jabeakideek benetako borondate komuna lortzeko ezintasuna duten kasuetarako baino ez da erreserbatzen.</p> <p>GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	--



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, barren@elgoibarkoizarra.
eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.




Zorionak, **Nikole**, gaur 6 urte bete dituzulako. Muxu eta besarkada bat, printzesa, etxekoen, eta bereziki, Manexen partez.



Zorionak, **Leire**, maiatzaren 13an 8 urte egingo dituzulako. Muxuak aitaren eta Zarauzko familiaren partez.



Zorionak, **Laida**, larunbatean 10 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxekoen partez.



Zorionak, **June**, igandean 9 urte beteko dituzulako. Patxo erraldoi bat, etxekoen partez.



Zorionak! Maiatzak 11, 61 urte ezkondu zinetela! Zilarrezko ezteiak izan ziren hasieran, urrezkoak gero, eta diamantezkoak ia! Ez zarete makalak! Segi bizitza elkarrekin gozatzen. Etxekoak.



Zorionak, **Martin**, asteartean 6 urte bete zenituelako eta primeran pasatu genuelako. Muxu handi bat lagunen eta familiakoen partez! Izugarri maite zaitugu!

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€.
Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€.
Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

RPS 181/19



Aldaz hartz kliniketan udaberrian irribarre distiratsuen lortzeko eskaintzak ditugu!

IRRIBARREAREN DOAKO AZTERKETA

Firstfit karillak zure irribarrean nola geratuko lirakeen jakin nahi duzu? Hilabete honetan hartu txanda Aldaz hartz kliniketan eta zure irribarrearen



azterketa egin ondoren, prototipo posible baten irudikapen birtuala egingo dizugu, doan.

HORTZAK ZURITZEKO SUSTAPEN BEREZIA

Hilabete honetan 300€-ren truke zure hortzek lehen izan zuten kolorea berreskuratzeko aukera izango duzue. Zure irribarra nola eralda daitekeen jakin nahi duzu?



IMPLANTEEN SUSTAPEN BEREZIA

Maiatzean implanteren bat egiteak saria du. Hartu txanda eta behar duzun informazio guztia emango dizugu.



Jarri gurekin harremanetan gure promozioei buruz informazio gehiago jasotzeko eta berreskuratu ezazu konfidantza zure irribarrean!

ALDAZ HORTZ KLINIKA
San Bartolome, 22 - 20870 Elgoibar
iyd@dentalaldaz.com
943 366 377

10 BARIKUA

16:30 Odol ateratzeak.

Jubilatuen Biltokian. Txanda hartzeko: 623 328 408

17:00 Buruarinak egiten ikasteko tailerra. Mendaroko Konparsa Taldeak antolatuta, Mendaroko Gaztelekuan. Izena emanda dutenentzat.

18:30 Espazio publikoak berrantolatzeko hasitako prozesuaren aurkezpen-bilera Mendaroko udaletxeko udalbatza aretoan.

11 ZAPATUA

17:30 Erraldoien topaketa. Kalegoen plazan.

12 DOMEKA

12:30 Emakumezkoen lagunarteko futbol partida. Real Sociedad - Alaves. Mintxetan. Sarrera, doan.

14 MARTITZENA

10:30-12:30 Espazio publikoan berrantolatzeko hasitako prozesuaren bilera adinekoentzat, jubilatuen egoitzan

18:30 Espazio publikoak berrantolatzeko plana diseinatzeko talde bilera. Mendaroko udaletxeko udalbatza aretoan.

15 EGUAZTENA

18:00 Xabier Leteren poesia eta kantagintza, Alex Gurrutxagaren eskutik. Elgoibarko Izarrak eta Udalak antolatuta, Aita Agirre kulturgunean.

16 EGUENA

19:00 Santa Ana baselizaren birgaitzearen inguruko azalpenak emateko bilera. Mendaroko udalbatza aretoan.

17 BARIKUA

18:00 Erakusketa: 'Ni naiz naizena'. Kultur Kafean, taberna ordutegian.

18:30 Errigorako produktuak jasotzea, Mendaron. Jubilatuen ondoko lokalean.

19:00 Kontzertua: Amorante. Herriko Antzokian.

ITZULIA WOMEN 24

Maiatzak 10, barikua

09:30 Elgoibar Sasoian. Kalegoen plazan. Saio irekia izango da.

10:30 Dantza urbanoak. Saio irekia, Lekuederren. Ordu berean, umeentzako herri-kirolak eta jolasak egongo dira.

12:00 - 13:00 / 14:30 - 15:30 Haur eta nerabeentzako jantokia. Maalako parkean.

13:00 Itzulia Women 2024 lasterketako lehen etaparen amaiera. Pedro Migel Urruzuno kalean.

Jarraian, sari banaketa. Kalebarren plazan.

15:00 Looping bike 360º eta mountain bike simulazioa. Maalako parkean.

19:00 Euskal dantza erakustaldia, Kalegoen plazan.

Jarraian, Patxangoi elektrotzaranga. Kalegoen plazan hasita.

22:00 Mugji Panderoa taldearekin erromeria. Maalako parkean.

24:00 DJ Latxirongak. Maalako parkean.

MORKAIKOREN EGUNA

Maiatzak 11, zapatua

06:00 Elgoibarko Mendi Itzulia. Kalegoen plazan.

08:30 Itzulitxoa, Kalegoen plazatik. Nahi duenak, Idotorbera autoz joateko aukera izango du eta han bat egingo dute kaletik igotzen direnekin.

10:00 Itzulitxoa Idotorbetik.

13:30 Finalisten Eguna.

Dominak banatuko dituzte, Kalegoen plazan.

Segidan, bazkaria. Kalegoen plazan.

17:00 Txixibilaldi taldekoei omenaldia, Kalegoen plazan.



Zinea

Herriko Antzokiko langileen greba dela-eta, asteburu honetan ez da zine emanaldirik egongo.

Eta, Debabarrean zer?

Historiaurreko Bilararen ibilbidea ezagutzeko irteera geologikoa

Euskal Kostaldeko Geoparkeak 'Mucha GEO en el Valle de la Prehistoria' izeneko irteera geologikoa antolatu du Geolodia 2024ren baitan biharko, Deban, kirol portuan, 09:30ean. Doakoa da irteera, baina gehienez lagun kopuru batentzako lekua egongo denez, aurrez izena emateko eskatu dute. Interesatuak Berrikan.eus webgunean igo duten albisteko loturan eman dezakete izena. Bi orduko irteera izango da.

2024ko botika ordutegiak:

09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

MAIATZA

10 BARIKUA	■ Oruesagasti
11 ZAPATUA	Barrenetxea
12 DOMEKA	Barrenetxea
13 ASTELEHENA	■ Ibañez
14 MARTITZENA	Garitaonandia
15 EGUAZTENA	Arriola
16 EGUENA	■ Fernandez
17 BARIKUA	Yudego

2024 urte guztian, gauzez:
Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)
943 204 230

■ Fernandez: Herriko Enparantza, 4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142	■ Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638	■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384
--	--	--



Meka
Lanbide Eskola



LANBIDE HEZIKETA ESKAINITZA 2024/25

Hazi, hezi, **Mekan** ikasi.

AURREMATRIKULA

Maiatzaren 6tik 24ra

GOI MAILAKO ZIKLOAK

- ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK
- METAL ERAIKUNTZAK
- GIZARTERATZEA
- GENERO-BERDINTASUNA SUSTATZEA
- HAUR HEZKUNTZA
- DIETETIKA
- AUTOMOZIOA
- KOMUNIKAZIO BITARTEKOTZA ***BERRIA!**
- Zuzendaritzan Laguntzeko Goi Mailako Teknikaria (bi ziklo 3 urteetan)

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
- SOLDADURA ETA CALDARAGINTZA
- MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEI ARRETA
- ERIZAIN LAGUNTZAILEA
- MAKINERIAREN ELEKTROMEKANIKA
- KARROZERIA
- IBILGAILU AUTOMOBILEN ELEKTROMEKANIKA

ESPEZIALIZAZIO KURTSOAK

- IBILGAILU HIBRIDO ETA ELEKTRIKOEN SISTEMEN MANTENTZE ETA SEGURTASUNA [GOI MAILAKO ESPEZIALIZAZIO KURTSOAK]
- IBILGAILU ELEKTRIKO ETA HIBRIDOEN MANTENUA [ERDI MAILAKO ESPEZIALIZAZIO KURTSOAK]

C MAILAKO GRADUAK

- ATMOSFERA NATURELEKO ETA BABESTUKO SOLDADURA **BERRIA!**



bulegoa@meka-elgoibar.eus
Telf. 943 748 019

www.meka.eus

ALBITZURI ERAIKUNTZA
Abiluzi Pte., 24
20070 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

EZEMARRI ERAIKUNTZA
Aragoikale, 3
20070 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

Fp
KIDUEK

AEOR
KIDUEK

Phono Sapiens

Anjel Ugarteburu



Historia aurreko **Australopitecus** hura zutik jarri zenetik urte askotxo pasatu da, eta oraindik zutik gabiltza, atzeko hanken gainean. Pentsatzekoa da gure aurrekari haiek zutik ibiltzeko premia larria izan zutela, inguruan zebiltzan animalia basati ehiztariak, belardien gainetik bista luzatuz, ikusi ahal izateko eta ziurtasunezko distantzian ibiltzeko.

Eboluzionistek, Charles Darwin ikertzailearen ildoari jarraituz, diotenez, zutitu ondorengo hurrengo abantaila handia izan da gizakiarentzat, eskuetako (h)atzei esker, inguruko gauzak manipulatzeko tresna berriak sortu ahal izatea. Atzamarrak luzatu egin dira eta behatzak (beheko (h)atzak) atrofiatu. Atzamarretan irabazi genuena behatzetan galdu. Atzamarren jardunari esker, **homo faber** (gizaki langilea) **homo sapiens** (gizaki jakintsu) bilakatu omen zen (ginen).

Atzamarrak ezezik garuna (garauna) ere garatu edo garatu egin zen. Atzamarren erabilera etengabeak ekarri omen zuen gure garunetako tolestura eta zimurduren konplexutasuna. Eskuek, atzamarrak erakutsi ziguten gure inguruko gauzen izaera eta hain arteko loturak egiten. Natura manipulatzeko lortutako garapenaren ondorioa da gure garuna. Naturarekiko harremana, beraz, irakasle. Hor, garunetako tolestura eta tximurretan, dago harreman horien islada. Kitzikatzen jakin behar bere potentzia guztia baliatzeko.


Orain **homo sapiens** ei gara. Jakin dakigu. Natura ulertu eta gure zerbitzura jarri omen dugu. Gizakia, ordea, ez da inguruko izaki eta indarrak ezagutu eta kontrolatzearekin konforme. **Sapiens** izate horretan ere mailak daude gizakion artean eta batak bestea menperatzeko

joera nabarmena da. Boterea lortzeko borrokak ez du mugarik. Australopitecus hari, batez ere lehorretik zetorkion mehatxua, eta orain, Internet eta mugikorren aro berri honetan, airetik dator harraparien eraso. Munduko gizaki guztiak gara teknologia berrien ehizakin. Berritoki ere **atzamarrak** dira protagonista. Teknologia **digitala** (latinez digitus: dedo: atzamarra).

Ez dut nik dudatan jarriko teknologia berriek ekarri diguten aurrerapena arlo askotan: Wikipedia, Whatssap, Email, Google (eta beste hainbat bilatzaile), jakingai asko ezezik munduko edozein txoko eskura jartzen dizkigutenak. Ondo erabiltzen ikasi eta irakastea da kontua, onurak probestu eta arriskuak uxatuz.

Izan ere, **homo sapiens** delakoaren lekuan **phono sapiens** jartzen badugu, behatzak gastatu eta garun zimurra plano bihurtzeko arriskuan izango dugu. Burujana deitzen zaio eta adinez aurrera goazenontzat hainbestekoa ez bada ere, gure ume eta gazteentzat benetakoa da harraparien ehizakin izateko aukera. Ukituz eta haztatuz gure ingurua eta ingurukoak ezagutu eta besarkatzeko balio duten edo beharko luketen atzamar (hamar atz) eta eskuak beste harrapari batzuen morroi eta bezero bihur litezke.

Ba, horixe. Descartesek esan zuen, bera **homo sapiens** zela frogatuz, **cogito ergo sum** (pentsatzen dut... beraz, banaiz), baina zure ordezkari beste batek pentsatu duenaren jokoa erortzen bazara... **cojito... luego me pillaré el toro**, hanketako errenak ez zaitu arriskutik aldentuko eta lau hankatan, behatzetan, ibiltzera behartuko zaitu.





Agustin Lazarobaster Mendikute

“Torre”

2024ko maiatzaren 5ean hil zen, 82 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Gaztetan txistulari eta dantzaria
herriko karroza gidaria
ofizioz mekanikaria
hitz goxo eta egokiko esataria
senar, aita eta aitxitxa maitagarria
zure begi urdinen distira betirako itzalia
lurrak goxo har zaitzala
Trinitateko amari gure eskaria**

Etxekoak



Maria Paz Idiabez Elorza

2024ko apirilaren 18an hil zen, 86 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Izan zarena,
erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da
zugandik jasotako dena.**

Etxekoak



I. URTEURRENA

Julia Larrañaga Garate


2023ko maiatzaren 7an hil zen, 101 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, maiatzaren 12an, 12:30ean, Garagartzako eliz-parrokian. Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.

**Maitasunez beti gure bihotzean,
aurki arte.**



Zergatik eta zertarako euskaldun? programaren baitan

XABIER LETEREN POESIA ETA KANTAGINTZA HITZALDIA



HIZLARIA: *Alex Gurrutxaga Muxika*

EHU-ko irakaslea eta Xabier Leteren obran aditua

*Xabier Leteren ibilbideaz eta bere obraz jardungo dugu,
obra horren aro nagusiak ezagutu eta gako estilistiko nahiz filosofiko nagusiak azalduz.*

Maiatzak 15, asteazkena
18:00etan, Aita Agirre kulturgunean



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURAK ETA HIRIEN
POLITIKA BAKIA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA URBANA

Gipuzkoako Foru Aldundia